



Universidad
del País Vasco

Euskal Herriko
Unibertsitatea

VITORIA-GASTEIZKO
INGENIARITZA
ESKOLA
ESCUELA
DE INGENIERÍA
DE VITORIA-GASTEIZ



INDUSTRIA ANTOLAKUNTZAREN INGENIARITZA MASTERRA

www.ehu.eus

AURKEZPENA ETA HELBURUAK

Egungoa bezalako eszenatoki konplexu, globalizatu eta erabat lehiakor baten barruan, geroz eta gehiago dira berrikuntzan eta ekoizpen eta finantza bitartekoen erabilera arrazionalen oinarritutako ekoizpen eredu baten alde egin dutenak.

Testuinguru berezi honetan, pertsonen gaitasunen balioesteak, gizarte eta ingurumen erantzukizunak eta ezagutzaren erabilera intentsiboak, sareko antolakuntza lanak eta publiko-privatua lankidetzak garrantzi handia hartu dute.

Industria Antolakuntzaren Ingeniaritza Masterrak maila handiko prestakuntza egokia eskaintzen du ingeniari jarduera garatu ahal izateko erakunde konplexuen eremuan, zuzendaritza eta

erakunde berrantolaketako eginkizunak hartuz.

Bere prestakuntza programaren xedea da erakunde-enpresaren arazoak zuzentzeko konponbideak bilatzea, funtzionamendu zein diseinu izaerakoak, enpresa eta beste erakunde batzuen egoera egituratu azterketatik abiatuta. Honela, izaera estrategikoko diagnostiko egokiak zehazten dira.

Eta konponbideen bilaketa strategiaren eta erakundearen diseinuaren artean dauden harremanak, bere funtzionamendu baldintzak eta enpresa hartzen duen ekonomia, politika, lege, gizarte, teknologia eta ingurumen mailako ingurugiroa ulertzean oinarritzen da.

Master honek Doktorego programetara sartzeko aukera emango du.

IRTEERA PROFESIONALAK

Erantzukizun handiko eginkizunak industria-arloan: ekoizpena antolatzea, erosketak kudeatzea, taldeak zuzentzea, proiektuak antolatu eta gainbegiratzea. Kalitatearekin eta marketinarekin lotutako eginkizunak.

Berrikuntzaren eta garapen teknologikoaren arloan bereziki estimatzen dira tituludun horiek, teknikan eta kudeaketan prestatuta daudelako.

SARBIDEA

Lehenetsita dago Industria Antolakuntzaren Ingeniaritzako Gradua. Horrez gain, honako gradu hauek egin dituzten ikasleak ere onartzen dira: Ingeniaritza Kimikoko Gradua, Ingeniaritza Elektrikoko Gradua, Industria Elektronikaren eta Automatikaren Ingeniaritzako Gradua, Industria Antolakuntzaren Ingeniaritzako Gradua, Industria Teknologiaren Ingeniaritzako

Gradua, Kudeaketaren eta Informazio Sistemen Informatikaren Ingeniaritzako Gradua, Ingeniaritza Mekanikoko Gradua eta Ingurumen Ingeniaritzako Gradua. Industria antolaketa eremutik kanpoko ingeniari gradu titulazioetatik etorrira masterrera sartzen diren ikasleek prestakuntza osagarri buruzko ikastaroak egin beharko dituzte.

OINARRIZKO INFORMAZIOA

Eskolak emateko lekua:	Bilboko Ingenieritza Eskola eta Gasteizko Ingeniaritza Eskola.
Irakaskuntza mota:	Eskolan bertakoa.
Hizkuntza:	Gaztelania.
Gutxi gorabeherako prezioa:	3.250-3.450 €.
Egutegia:	Irailtik ekainera, arratsaldez.

IRAKASTORDUAK/IRAUPENA

60 ECTS / ikasturte 1

<p>Nahitaezko Gaiak</p> <hr/> <p>30 ECTS kreditu</p>	<p>Hautazko Gaiak</p> <hr/> <p>9 ECTS kreditu</p>	<p>Proiektuak / Ikerketa-lanak</p> <hr/> <p>21 ECTS kreditu</p>	<p>Guztira</p> <hr/> <p>60 ECTS kreditu</p>
--	---	---	---

PRESTAKUNTZA PROGRAMA

Nahitaezkoak:

- Enpresaren analisi ekonomiko-finantzariora.
- Enpresa-kudeaketari aplikaturiko kalitatea.
- Zuzendaritza estrategikoa.
- Giza taldeen kudeaketa aurreratua.
- Berrikuntza, teknologia eta ezagutzaren kudeaketari sarrera.
- Enpresa eta industria marketina.
- Aurreratutako estatistika-metodoak antolakuntza ingeniarietan.
- Arazo eta ikuspegi berriak ekoizpenaren antolakuntzan eta logistikan.
- Antolakuntza ingeniartzako teknika eta eredu kuantitatiboak.

Hautazkoak:

- Ikaste automatikoa ekoizpen-sistemetan.
- Ekintzaitza / Negozio-plana.
- Enpresa berrikuntza.
- Kudeaketa-sistemen integrazioa.
- Enpresa-adimena.
- Informazio-sistemak enpresan.

HARREMANETARAKO

Arduraduna: Ernesto Cilleruelo

Tel: 946014299

Posta elektronikoa:

ernesto.cilleruelo@ehu.eus

ERAKUNDE LAGUNTZAILEAK / BABESLEAK



www.ehu.eus/eu/web/master/industria-antolakuntzaren-ingeniari-tza-masterra